


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko irailak 24 / III. urtea / 94. zenbakia

Udazkeneko Sanferminak

Uztaileko Sanferminen zaporea oraindik ahoan dutela, iruindarrek ongi-etorria eman-go diote gaur Sanfermin Txikiari. Navarrerria kaleko jaiak aspaldidanik datoz eta nahiko errotuak daude bere inguruan. Bihar eta etzi egingo diren entzierro eta zezenketak, berriz, ez dira usadiokoak. Iaz egin ziren, Alfredo Jaimeren ekimenez, eta aurten ere Iruñeko alkatearen borondetez egingo dira. Peñek asteburu hau 'benetako' Sanferminak bailiran ospatzeko gomendatu dute, zapitxo gorri eta guzti, baina denek ez dute begi onez ikusi Navarrerriako jaiak udazkeneko Sanferminak bihurtzeko nahia. Kritikoek diotenez, Udalak ezin ditu bere egin betidanik herrikoiak izan diren festak.



Zubian barna



BINGEN AMADOZ

Fernando Sebastian Iruñeko artzapezpiku berria ezkerreko hankaz ari da gurean lehenbiziko urratsak ematen eta jakina da ezkerraldea dela eliza ofizialarentzat okerra. Ezkerreko hankaz ibiltzeaz gain gotzaina garaiz kanpo eta lekuz kanpo ari da.

Nafarroako gizarteak begi onez ikusten du hein handi batean intsumisioaren mugimendua. Eta ezin daiteke beste moduan izan. Armadako zerbitzua egitea ez da gurean gauza zaharra. Aurreko bizpahiru belaunaldietako gizo-

nak denbora pasa eta askotan osasuna galtzen ibili ziren gure lurraldetik urrun, haienak etziren interesak halabeharrez defendatzen. Borondatez etziren joaten ordukoak, gotzain jauna, oraingoak joan nahi ez duten bezalaxe. Galde ezazu bestela ia zenbat gazte joan diren soldadutzara berriek hala nahi izanda. Galde ezazu ere ia zenbat nafar dauden Goardia Zibila edota Polizia Nazionalen sarturik, eliza ofizialak horren bidezko eta zilegi kontsideratzen dituen erakunde horietan.

Intsumiso izateko hainbat arrazoi daude, neretzat denak baliagarri, eta haxe da bat: erakunde militarrek arrotzak dira guretzat. Ez da hala ere horixe arrazoi nagusia, nere ustez.

Erakunde militarrek gerra egin edota prestatzen dute. Politikarien aginduz, egia da, baina haiek tresna dira gerrarako eta lanbide egin dute, baita gizon-emakume, haur eta heldu diren bere etsaiak

hil eta zanpatzeko, garai zaharretatik honuntza geroz eta teknika hobeagoak erabiltzen dituen zientzi larriarekin.

Estatuaren defentsa omen da artzapezpikuarentzat arrazoi zentzuzkoa ejerzitoak justifikatzeko. Baina militarrek zeintzurengandik babestu behar gaituzte egun? Nortzu dira gure erasotzaile posibleak? Ederki inbaditurik gaituzten amerikarrak, egoera guztiz larrian bizi diren errusiarrak edota beren zilborrari begira diharduten gure auzoko frantsesak? Militarrek gu guztiok babesten al gaituzte? Haien mugak onartzen ez dituztenak ere bai? Baita haien menpekoak izan

nahi ez dutenak? Herri xeheak, izan mugaz alde batekoa edo bestekoa, ez gaitu beldurtzen. Bai ordea, mugan bertan edota ia herrialde guztietan barna dabil-tzan gizaki armadunek. Inposaketak, armen bidez egiten dira, modu gogorrean.

Libre bizitzeko jaio gara. Hortan ez dut zalantzarik eta norberak egin dezala borondate onez goxoen edo hoberen estimatzen duen zerbitzua. Ezin zaio inori komunitate baten alde edota kontrako zerbitzu bat egitera behartu. Gauzak ongi dira nahita eginak daudenean.

Dena den historia errepikatzen da egunez egun. Elizako hierarkiak bat egiten du boterearekin nahiz eta herri xehea botere horren kontra egon. Nafarroako go-

bernadore militarrek poz handiz eskertu ditu zure hitzak Sebastian jauna eta zuek biak gustoko du-zuen legearen pisua jasan duten gure gazte ausart eta sanoeneta-koek ez dute zuregandik mesederik hartu. Askapen-teolojiaren aldekoa etzizela, bagenekien. Beraz ezin gara gehiegi harritu oraingoan zapalduen alde agertu beharrean zapaltzaileen lagun azaldu izanagatik. Pozik egon zaitezke.

Aspaldi honetan aldendu gara lurralde honetako belaunaldi gazteenak zure menpekotasunetik gotzain jauna eta gure baliorik maitakorrenak gaitzesten, ez gaituzu berreskuratuko.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Carles Planell pintorearen erakusketa zabalik dago Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak Gotorlekuan duen aretoan. Artista honen lanak irailaren 26a arte izanen dira ikusgai arratsaldeko 19.30etatik 21.00etara lan egunetan, eta 12.30etatik 14.00etara jai egunetan.

Maria Jesus Arbizu margolariaren erakusketa ikusgai dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Munizipalak Garcia Castañon kalean duen aretoan. Urriaren 3a arte iraunen du, eta ikusteko ordutegia ohizkoa da: lan egunetan 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan 12.30etatik 14.00etara.

ZINEMA



'Tortugas Ninja II' pelikula botako dute bihar, irailak 25, Kordobilla herrian. Nafarroako Gobernuak antolatuta, zinema ekitaldia gaueko 22.00etan hasiko da. Sarrera dohainik.

'Robocop' izeneko pelikula botako dute igande honetan, hilak 26, Orokieta herrian. Emanaldia gaueko 22.00etan hasiko da. Sarrera dohainik izanen da.

ANTZERKIA



'Historia de una muñeca abandonada' antzezlanaz plazaratuko du asteburu honetan Iruña Pequeño Teatro taldeak. Bihar, Orokieta izanen da antzerkia, gaueko 22.00etan hasita, eta etzi, igandean, Kordobilla arituko dira, ordu berean.

Kokox, Kakax eta Kirriki pailazoak arituko dira asteburu honetan Olazti eta Altsasun, Sakana Kultur Zikloaren barruan. Bihar, irailak 25, Altsasuko Herriko Plazan arituko dira, arratsaldeko 18.00etan, eta etzi, Olaztiko pilotalekuan izanen dira, eguerdiko 12.00etan hasita.

Kollins Clown antzerki taldeak 'En tren' izeneko obra plazaratuko du bihar Olaguen, arratsaldeko 19.30etan hasita. Emanaldia herriko pilotalekuan izanen da, eta sarrera dohainik.

Kiki, Koko eta Moko obra antzeztuko du iganden Azkona taldeak. 12.00etan Irunberriko pilotalekuan plazaratuko dute lana, eta arratsaldeko 17.00etan, berriz, Sartagudan arituko dira. Irunberri eta Sartagudan.

'Aleph' antzezlanaz plazaratuko du bihar Gabalzeka taldeak, Jaurrietan. Antzerki emanaldia arratsaldeko 20.00etan hasiko da, herriko pilotalekuan.


Larraungo ibaiaren ur jaioa

Larraungo ibaiaren sorlekua inguruko ibilaldia proposatzen dugu aste honetan, ibilbide lasaia, paisaia gozatzeko. Larraun bailarako Iribas herriaren parean jaiotzen da ibai hau, hasiera hasieratik ur kantitate handia duelarik. Herriaren inguruetan badaude beste ur jaio batzuk ere, hala nola leze handi eta interesgarri bat.

Gure ibilbidea Iribas herrian hasiko da. Larraungo bailarako herri tipikoa, txikia eta polita dugu Iribas. Heritik atera eta berehala aurkituko dugu Larraun ibaiaren ur jaioa, seinaleak baitaude. Leku polita benetan, zuhaitzen artean ikus daiteke nola ateratzen den ura.

Iribas utzi eta Baraibarrera joko dugu, larre handiak zeharkatuz. Bertan, aukeratu egin dezakegu, edo herria ikusi eta atsedena hartu, edo inguruetan dauden trikuharriak ikustera hurbildu. Arranazpieta, Txurixoberri eta Zubarrietako Gainan dagoena ikus daitezke, bidetik gehiegi atera gabe.

Baraibar utzi eta Aralarko San Miguel basilizaren bidea hartuko dugu, zelaiak eta mendiak zeharkatuz. Bertan, pago izugarriak ikus daitezke, bertakoak eta 'amerikanoak' deitzen direnak. Bide hortatik segituz, Erbitza mendira iritsiko gara, 800 metro-



koa. Bertan unetxo bat pasa ondoren, ekialdera joko dugu, San Migueleko bidean jarraituz. Bidegurutzetara batera iritsiko gara, eta han bide hau utzi, eta beste senda zabal eta garbi batetik jarraituko dugu, larreak eta harizti txiki bat zeharkatuz.

Gaztaindoak eta hareitz ugari ikusiko ditugu bide horretan, Ertzila ibaiaren ur jaioa goazen bitartean. Aitzarreta izeneko ur jaio honetan atsedena hartuko dugu, lekuak merezi baitu. Ertzila ibaia, Guadianaren antzera, desagertu egiten da jaio eta be-

rehala, aurrerago berriro agertzeko. Ibilbidea jarraituz, Ertzila ibaiaren isurbidea ikusiko dugu, harizti baten erdian dagoena.

Hortik, eta Iribas herriraino, bailara lehor bat ikus dezakegu, lizar eta belar ugarien artean. Neguan, euri asko egiten duenean, ureztatzen da bailara hau, isurbideak ezin baitu ur guztia irentsi.

Bidean, Lezegalde izeneko lezea ikus dezakegu, urez bete egiten dena neguan. Ibilbidea Iribasen amaituko dugu, hasi dugun bezala.

ASTEKO PERTSONAIAK



Pedro Mari Zabala
Entrenatzailea



Ejub Cehic
Bosniako irakaslea



Federico Tajadura
PSNko parlamentaria

Liga txapelketa honetan Osasunak bi partidua jokatu ditu etxean, eta lbiak galdu. Real Madriden aurka galtzea 'espero zezakeela' diote askok, sarritan irabazi badio ere. Baina Errealaren aurka bi zero galtzea eta gainera gaizki jokatzeko kezgarria da oso. Pedro Mari Zabala entrenatzailea ere bere kezka agertu zuen partiduen ostean, «ez zizaidan batere gustatu Errealaren aurka galdu zuen taldeak, kezkaturik nago taldearen egoera eta jokalarien animo falta ikusi eta gero», zioen. Horrelakorik ez da sekula gertatu Iruñeko taldean, hiru jardunaldi jokatu eta hiru negatibo izatea hain zuzen. Bere ustez, esperientzia handiena duten jokalariek dira huts nabariak egiten dituztenak, «hori ez da normala, baina pazientzia piska bat izan beharko dugu».

Haurren Enbajada izeneko elkartearen presidentea izan da aste honetan Iruñean, Gurutze Gorriak Bosniako haurrak laguntzeko antolatu duen kanpaina baten aurkezpenean. Ejub Cehic irakasle bosniarrak bere herria bizi ari den gerrari buruz mintzatu zen, eta egoera horretan haurren sufrimenduak azpimarratu zituen. Milaka lagun hilik, milaka lagun errefuxiatuak, eta beste hainbeste baldintza sinestezinetan bizi direnak, gerra baten datuak dira. «Ezin dugu sinestu nola XXI. mendearen hasieran gerta daitekeen horrelakorik» zioen Ejub Cehic irakasleak. Gerra hasieratik haurren defentsa lanetan aritu da gizon hau, eta orain ere bertan segitzen du, Split hirian dauden kanpamenduetan.

Nafarroako Alderdi sozialistak oposizioa dela ahaztu du» adierazi zuen pasa den egunena Federico Tajadura alderiko parlamentariak. Oso garbi utzi zuen, naiz eta bere alderdia izan, sozialisten jarrera «eskuinarekin oso biguna» dela. Aldaketa ideologikoen alde agertu da Tajadura, hala nola PSOEren barruko demokratizazioaren alde. Eta aldaketa hauek Nafarroan ere eman behar direla gaineratu zuen, «oposizio konstruktiboa izan gaituzten». Alde horretatik, Santiagora egindako bidaiak «lotsemangarria» izan zela azpimarratu zuen. Eskuin aldean sortutako ekimen hauek ez dutela sozialisten erantzuna jasotzen azaldu zuen, «eta orduan eskuina hazi egiten da, eta benetan ez duen indarra lortzen du».

AHAZTU GABE!

'SU ETA GAR' eta 'Lin Ton Taun' musika taldeen kontzertua izanen da asteburu honetan Altsasun, Nafarroa Oinez 93 taldeak antolatuta. Justu Nafarroa Oinez jaiarako hila-bete falta denean, taldeak ekitaldi batzuk antolatu ditu, uda osoan bezala. Bihar, larunbata, gaueko 12.00etatik aurrera, musika kontzertua izanen da Inigo Aritza ikatolan bertan, badakizue, Dantzalekura bidea hartu eta Institutoaren ondoan dagoena. Han, eta aterperik gabeko zelai batean, bi talde ospetsu hauek arituko dira. Sarrerak 600 pezetatan salduko dituzte, prezio bakarra jarri dutelarik.

Datorren ostegunean, berriz, irailaren 30ean hain zuzen, Euskadiko Balletaren aktuzioa izanen da Iruñeko Gaiarre Antzokian, Nafarroa Oinez 93 taldearen eskutik. 'Horrela gara gu' izeneko lana aurkeztuko dute, eta sarrerak bi prezioak izanen dira: beheko eserlekuetakoak 1.500 pezetatan, eta goikoetan, 1.000 pezetatan. Emanaldi interesgarri hau arratsaldeko 20.30etan hasiko da.

Hurrengo astetan, bestalde, pilota partidua antolatu dituzte, erremontea eta eskuzko partidua hain zuzen. Oraindik pilotarien izenak ziurtatu gabe daude, baina Euskal Telebistak zuzenean eskainiko ditu.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

'TXURI TA BELTZ' izeneko

saioa izanen da bihar larunbata, larunbatero bezala, Radio Nazionaleko euskarazko programazioan, Fernin Erbitiren eskutik. Eguerdian izanen da bihar, 13.00ean, eta astean zehar, arratsaldeko 20.00etatik 21.00etara izanen da, elkarrizketak, musika, albisteak, aste-ko gaien azterketa, eta beste-lako gaiak tratatzen dituelarik.

Iraileko feriak Garesen

E. ELIZONDO / IRUÑEA

Iraileko azken asteburua ailegatuta, feriak ospatuko dituzte Garesen gaur hasita eta igandera bitartean. Antzinatek egiten diren feria hauek bertako Udalak antolatzen ditu eta azken hiru urteotan ere, herriko ostatuen laguntza jaso dute. Eskulangintza eta abere erakusketaz gain, musika eta dantzak ere badute lekuri Garesen eta feriak, bertako eta inguruko biztanleentzat, besta egiteko aukera ezin hobea bilakatzen dira.

Feria osatzen duten ekitaldi guztien artean, zalantzarik gabe, orain dela hamar urte herriko lagunak egiten duten laia lasterketa da ospetsuena. Aurten, igandean egingo da eguerdiko ordu bietan eta beti bezala, kale Nagusian elkartuko dira partehartzai-leak. Bertakoak ez direnentzat laia lasterketa, gauza bitxia izan badaiteke ere, Garesen ohitura bilakatu da. Eta honen adierazgarri da, hain zuzen ere, Udaletxeko erakustokian zabaldu duten laia lasterketari buruzko erakusketa. Bertan, aurtengo edizioaren kartelaz gain, aurreko edizioetako argazkiak eta bestelako bitxikeriak bildu dituzte antolatzaileek.



Betidanik ospatu dira Garesen iraileko feriak.

JOXE LACALLE

Gareseko ferian aurten ere eskulangintza eta abere erakusketak izango dira protagonista. Hala ere, hauek ez dira ekitaldi bakarrak eta egitaraua bete-betea ageri da hiru egun hauetan. Gaur hasita, arratsaldeko 16.30etan plater tiroketa egongo da Ehiztari Elkarteak antolatua. Gaueko 10etan zezen suzkoa aterako da kalera eta 23.30etan Garesekoa den Laino taldeak eskainiko du

kontzertua. Folk musika entzun ahal izango da ere, Izugarri taldearen eskutik.

Larunbatean berriz, kirolari txoko bat eginez, 10.30etan pilota partidua jokatu dute Irurtzungo eskolako haur eta gazteek. Arratsaldeko 5etan migatuen entzierroa egingo da. Gau partean zezen suzkoa aterako da eta gero dantzan ariko dira herriko lagunak. Igandea azken eguna

izanik, goizeko 10.30etan eta kale Nagusian egingo den eskulangintza erakusketa eta ganadu feria izango dira protagonistak. Gauean ere dantzaldia eskainiko du bertakoa den Digital taldeak. Erran bezala, Gareseko ostatuak ere parte hartzen dute antolaketan eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Horien artean, 'Garagardoaren maratonia' da aipagarri, aurten bigarrenetako egingo dena.



LIZARRAko Udalarteko Kirol Elkarteak, hasi berri den ikasturtean bertako haurrek izango duten kirol eskaintza eman du aditzera. Hirugarren, laugarren, bostgarren eta seigarren maila ikasten ari direnek parte hartu ahal izango dute. Saskibaloian, eskubaloian, rugbyan, xakean eta abar aritzeko aukera izango dute bertako haurrek, ikasturte oso-rako 2.000 pezetaren truke.

UHARTEko bost lagunak bertako lekuizenei buruzko liburua argitaratu dute. Herriko jaien barruan aurkeztu zuten egileek Uharteko izenen jatorri euskalduna agerian uzten duen lana. Ana Irigoien Historia lizentziaduna, Beatriz Ilundain Historia eta Zuzenbide ikasketak egin dituen, Benigno Ibiriku Uharteko bizitza aztertu duena, Julio Urdin eta Joaquín Ahetxu argazkilaria dira egileak eta ia bi urte eman dituzte ikerketa lanetan. Lekui-zenak oinarritzat hartuz, historia eta artea aztertzea izan dute ere helburu, idazleek adierazi dute-nez, «herriaren nortasuna eza-gutzeko funtsezkoa baita». Liburuak XI eta XIX. mende bitarteko epea du aztergai eta euskarari buruzkoak dira daturik aipagarrienak, «hori baitzen Uharteko hizkuntza erdara ezarri arte».

FESTAZ. FESTA.

Datorren astean Sanmigelak eta horren ondoren amaiera

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Lehen hostoak erortzen hasi direnean, herrietako azken jaiak ailegatzeko ari dira. Aste honetan Uharteko eta Kadereitako helduko diote lekukoari, datorren astean, Sanmigelekin batera, azken jai zaparrada erori arte. Bidea luzea izan da, bakailaoarena baino askoz luzeagoa —horrek hiruzpau egun besterik ez du irauten, eta gureak berriz lau hilabete inguru—, baina amaierara ailegatzeko gaude. Askoren gibelet zinez eskertuko dute helmugaratzea.

Baina helmugara ailegatu aurretik, esan bezala, Uharteko azken zurrutadak gozatzeko aukera izanen dugu. Ostiralean arratsaldeko bostetan Zuentzat taldearekin haurrendako dantzaldia izanen da, zazpi t'erdietan Herri Kirolak, gaueko hamart'erdietan kalejira Ardanbera txarangarekin, eta gauerdian Drindots taldearekin gaupasa. Larunbatean goizeko bederatzietan dianak

egonen dira, hamabietan meza, eguerdiko ordu bata laurden gutxietan gaiteroak ariko dira, arratsaldeko ordu bietan Tiburon orkestrarekin dantzaldia, lauretan erremonte partiduak, seieta Pumuki txarangarekin kalejira, zortzietan Anker taldearekin dantzaldia eta gaiteroak, hamarretan berriz ere gaiteroak, hamabietan Anker taldearekin gaupasa, eta gaueko ordu batean 'Bajadica de San Esteban'.

Amaiera ez da nolanahikoa izanen, azken txanpan San Migelen eskutik herri frankok bat egingen baitute. Kadereitan asteburu honetan eman diote hasiera azken txanpa luzeari, eta heldu den igandera arte jaiaren murgildurik izanen dira. Horren atzetik asko eta asko abiatuko dira. Leku gehienetan asteazkenean —hau da, hilak 29— esprintari hasiera emanen diote. Barillas, Kadereita, Ziritza, Korella, Kortez, Es-laba, Esprontzedo, Larraga, Olkutz, Salinas de oro, Malerreka-Urrotz, Igantzi eta Artazu.



Giro aparta izango da Sanmigelelan.



ARRAITZEN, eztabaida sortu dute ekologista taldeek bota omen dituzten sugeek. Antza denez, bertako baseritar batek hilik aurkitu ditu bereak ziren hiru behi, eta sugeei egotzi die errua. Sugeak direla eta, baseritarrek eta ekologistek duten tira bira ez da gaurko kontua eta Arraitzeko bezalako gertaerak, eztabaida pil-pilean egotea eragiten dute. Ekologisten ustez botatzen dituzten sugeak ez dira pozoin-tsua baina baseritarrek, jasaten dituzten kalte askoren erantzule-tzat jotzen dituzte.

GITEROKO errektoreak txapelketa, bertan bera utzi behar izan zuten joan den igandean, «ordena publikoa nahasteagatik». Jose Luis Pascual enpresariak zortzi bikote kontratatu zituen txapelketan parte hartzeko eta bakoitzak 200.000 pezetako ordaina jaso behar zuen. Iskanbila, azken unean beste bikote bat aurkeztu zenean sortu zen. Parte hartzerik ez zuela erran zioten bikoteari baina enpresariaren alabak adierazi zuenez, «ezeko erantzuna ez zuten onartu», eta iskanbila galanta sortu zen.



Sanferminak uztaillaren 14an bukatu ziren 'Pobre de mi' abestu ondoren, baina iraila ailegatuta eta aurtengo udari merezi duen agurra emateko, asteburu honetan ospatuko ditu Navarrerria ka-leak bere jai egunak, Sanfermin Txikitoak alegia. Aldapako San Ferminen omenez, Santuaren Martiritza eguna, irailaren 25a dute egun nagusia, egun Iruñea osoko jaiak direnak.

Sanfermin Txikiak: noren jaiak?

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Uztailaren 6an, urtero, eguerdiko hamabietan aireratzan den txupinazoaren hotsak hasiera ematen die mundu guztian ezagunak diren jaiak: Sanferminak dira. 14ra bitartean Nafarroako hiriburuko kaleak jendez eta algaraz betetzen dira, agurtzeko ordua ailegatu arte. 'Pobre de mi' abestu eta jaietaz gozatu duten guztiak, «datorren urtera arte, San Fermin» erran behar dute. Baina iruindarren bizi poza hain handia izanik, urte bete itxaron ezin eta iraila partean, hara non agertzen den berriro San Fermin!, Sanfermin Txikia, ordea.

Garai batean, XVI. mendera arte, San Fermin eguna urriaren 10ean ospatzen zen, egun hura, Amienseko Elizak, San Fermin Picardiko hiria fedeztatzeko asmotan, Amienseko sartu zelako oroigarri baitzuen. Baina hila horretako eguraldi ezegonkorak arazo ugari sortarazten zion Iruñeko lagunei. Hau ikusirik, 1590. urtean Iruñeko Udalak hiriko patroia zenaren eguna uztaillan ospatzea eskatu zion elizburuari. Apezpiquak, eskaria bete zuen eta ordutik Santuaren jai eguna uztaillaren 7a izan da.

Baina uztaillaren 7a edo urriaren 10az gain ere, iruindarren Santuak izan du, bai, bestelako jai egunik eta horietako bat da hain zuzen ere, Sanfermin Txikiak ospatzen dutena. Uztaillaren 25a da Navarrerria kalekoek jai egiteko aukeratu duten data, San Fermin Martiritzaren jai, alegia. Ospakizun hau ez da, ordea, azken urte hauetako kontua, bere jatorria bilatzeko oroimenak gogoan ez dituen garaiaik ekarri behar baitira burura.

Navarrerria kalean ospatzen diren jaien berri izateko, hala ere, 40ko hamarkadara jo behar dugu, orduantxe hasi baitziren, egun iruindar guztiak ezagutzen dituzten Sanfermin Txikiak egiten. 1940. urte inguruan beraz, hasieran lagun arteko jai izan zenak bere lehen pausoak ematen hasi zuten. Gorakada edo indartze nabarmena bizi izan zuen, ordea, 1978. urtean, uztaillan Sanferminetako ospakizunak bertan bera utzi eta irailaren burutu zirenean Sanfermin Txikiak. Bizi izan ez bazituen ere, pozik gogoratzen

ditu lehen urte haiek Nuria Zudairek, Navarrerria Kaleko Jaien Komisioaren kideak. Gorakada horren ondorioz, jaien interesaz jabetu zen jendea eta Navarrerria inguruko kaleen mugak gainditu zituzten ere; gaur egun, Iruñea osoko jaiak direla erran daiteke.

Hauetaz gain, Iruñeko Udalaxeak egun hauek aprobetxatuz antolatzen dituen ekitaldiak kontuan hartuta eta nahasketarik egon ez dadin, Nuria Zudairek argi utzi nahi izan du «Navarrerria kaleko jaiak bertako Komisioak» antolatzen dituela. «Auzoan burutuko diren gauza guztien arduragurea da», erran du Zudairek. Beste kontuak dira, «Udalak hil osorako antolatu dituen ekitaldiak, asteburu honetan ospatuko direnekin batera programa batean argitzera eman dituenak». Navarrerria kaleko jaiak ere ekitaldi hauen artean ageri ditu programak eta hau dela eta, «gure ezadostasuna agertu diogu Udalari», dio Nuria Zudairek; «hutsigite bat izan omen da», hori da jaso duten erantzuna. Beraz, «asteburuen egongo diren su artifizialak eta Gaztelu plazako dantzaldia Udalaxeak antolatu ditu, baina Navarrerria kaleko ekitaldi guztiak bertako Jaien Komisioak», behin betiko argitu nahiz izan du bere kideak. Honen inguruan aipatzekoa da ere, azken urtetan Sanfermin Txikietan burutu diren entzietako eta zeren jaiak direnak. Zudairek ontzat hartzen dituen ekitaldi hauek, «jai giroa alaitzea lortzen badute». Arazoa, hala ere, ez da hain sinplea, eta iruindar askoren ustea da hauek, Udalak Sanfermin Txikiak antolatzen dituzten gauzak ezin hobe atera daitezkeen. Honetarako ere, Peñen laguntza izango dute edo izan dute azken hilabetetan bertakoek, «jai giroa ahalik eta handiena» izan dadin baitute denek xedetza. Gainera, Zudairek uste du, «argi dago Peñek jaien zabaltearen Sanfermin Txikiak. Bizi izan ez bazituen ere, pozik gogoratzen

IRUÑEKO PEÑEN LAGUNTZA

Polemika edo nahasketa hau alde batera utzita, azken xehetasunak orobiltzeari ekin diote azukioideek, asteburu gauzak ezin hobe atera daitezkeen. Honetarako ere, Peñen laguntza izango dute edo izan dute azken hilabetetan bertakoek, «jai giroa ahalik eta handiena» izan dadin baitute denek xedetza. Gainera, Zudairek uste du, «argi dago Peñek jaien zabaltearen Sanfermin Txikiak. Bizi izan ez bazituen ere, pozik gogoratzen

Uztaleko Sanferminak bukatu bezain laister hasi ziren Navarrerria kaleko aurtengo Txikiak prestatzen. Aurrekontua 2,5 milioi pezetakoa da eta Nuria Zudairek hitzetan, «500.000 pezetan inguruko irabazia baino ez dugu lortuko». Diru kontuetan aipagarria da ere Iruñeko Udalak duen garrantzia. Hain zuzen ere, irailako Sanferminak beharrezkoa dute bizi ahal izateko Udaletik jasotzen duten subentzioa. Hau dela eta, Zudairek argi azaldu du guztien asmatan dagoen nahia: «Sanfermin Txiki jaiak, jai ofizialak izatea». «Iruñeak ere, jai handiak eta txikiak izango zituen, Txiki izena errealtatearen adierazgarri bihurtuz». Ofizialtasunik ez duten bitartean, Zudairek erraten duenez, «oso gogorra da subentzioa izango dugun ala ez jakin gabe jaiak prestatzea». Oraingo, diru laguntza izan dute, baina aurrerantzean ere izango duten ala ez, «horri buruz ez dago inongo ziurtasunik».

Diruaren gora beherak alde batera utzita, funtsezkoena zera da, hemen ditugula Sanfermin Txikiak! Datorren urtean zapi gorrikeria zera estali arte, txupinazoak eztabada egin eta 'handiak' etorri bitartean, 'Txikiak' izan daitezela iruindarren kokagune.

EGITARAUA

Besta kalean dago

Asteburu bakarreko jaiak badira ere, 72 ordu bete beteak izango dituzte iruindar guztiak:

Ostirala 24

12.00 Txupinazoa. Haurrentzat goxokiak eta opariak banatuko dira.
12.15 eta 17.30 Auzoko buruhandiak.
18.30 Haur txokolatada Santa Cecilia.
20.00 Lehen haurrentzako entzietarra, auzoko kaleetan zehar.

20.30 Musika jaialdia, txalaparta, gaitero akordeolari eta txistulariekin. Gainera Arkaitz taldea egongo da.
22.00 Lehen zeren suzkoa.
22.30 Panama orkestrarekin berbena, Santa Cecilia plazan.

Larunbata 25

08.00 La Pamplonesarekin diana.
10.00 Haur jokoak San Jose plazan.
12.30 Iruñeko buruhandi eta erraldoiak auzora ailegatu dira.
13.00 XIII. Krosa, Carmen eta Navarrerria kaleetan.
14.00 Kalderete eta paella txapelketa.
16.00 Haur jokoak eta 'karaoke' txapelketa San Jose plazan.
18.30 Auzoko buruhandien ibilaldia.



19.30 Aldapako San Fermin plazan Meza abestua, auzoko hildakoek omenez.

20.00 Haur entzietarra.

20.30 Haurrentzako dantzaldia Santa Cecilia plazan.
22.00 Zeren suzkoa.
22.15 Auzoko kaleetan herri afaria.
00.00 Zantzarrik ibiliko dira.
00.30 Santa Cecilia plazan dantzaldia.

Igandea 26

07.00 Santa Maria La Realeko auroren eskutik aurorak.
08.00 La Pamplonesaren diana.
10.00 Miga jatea Santa Cecilia.
11.30 Aldapako San Fermin elizan Meza Nagusia.
12.00 Prozesioa.
13.30 Jota jaialdia Navarrerria taldearekin, Santa Cecilia.
17.00 Haurrentzako jaialdia Navarrerria plazan.
18.30 Herri kirolak San Jose plazan.
20.00 Haurrentzako entzietarra eta He-goamerikako musika jaialdia.
21.45 Azken zeren suzkoa.
22.00 'Pobre de mi', Santa Cecilia plazan.



Iazko Sanfermin Txikietako entzietarra gogoratzen duen irudi bat erdian. Behean, erraldoiek agurra aurtengo uztaileko ospakizunetan. OSKAR MONTERO

Bikoizketa

● Perikok ETB pizten du. Pelikula bat. Berehala okertzen zaio muturra. Baina zer da hau? Euskaraz ari al dira? Ez dut tutik ere ulertzen. Botoia sakatu eta beste edozein pelikula, erdaraz. «¿Conociste alguien a quien no mataras?». Hau bai, hau ona. Eta Perikok patxara ederrean irensten du edozein gauza, ulermen mailako arazo berezirik gabe, antza.

Makina bat jendeak kritikatu du euskarazko pelikuletako bikoizketa. Atxagak eta Andu Lertxundik adibidez. Kezkagarria da hala ere, gure idazle ospetsuenetakoak diren bi hauek eman dituzten argudioak. Argudioak ez eta edozein Perikok egin dezakeen balorazio subjektiboa egin dutelako, hain zuzen. «Euskal zinemagintzari dagokionez maiz euskarazko bikoizketa tramite burokratiko hutsa besterik ez da eta negargarriak dira itzulpen asko». Lertxundik. «... zeren bestela nabarmen geldituko baitzen, eta agerian itzultzailearen lanaren kalitate negargarria». Atxagak. Uste dut gure gizartearen arazoez eta euskararen erabilera hain kezkatutik omen dauden idazle handi haiei eskatu ahal eta behar zaiela norberaren subjektibitate harutzagoko analisirik. Edo, bestela, ixiltzea ere badaukate. Itzultzaileen aldetik entzuten direnak ere ez dira beste munduko gauzak. Duela ez asko, honi buruz Iruñean emaniko hitzaldi batean, Amurizak esaten zuen—Amuriza ETBko itzulpenak egiten dituenetako bat da—bi arazo nagusi ikusten dituela: bata, euskararen erlatiboaren mugak eta beste, euskaraz «hizkuntza luzea» zela, aldamenekoak «laburragoak» ziren bitartean. Horrekin esan nahi zuen itzuli beharreko hitza ia beti dela laburragoa, silabaz, euskararen ordaina baino, horrek dakarren sinkronia-arazoei. Orain arte entzun eta ikusi ahal izan ditudan hizkuntzaren sailkapen guztietan denetarik entzun eta ikusi dut (hizkuntza preindoeuropearrak, erromanikoak... hizkuntz malgukariak eta eranskariak... enfin), baina sekula ez hain azientifiko eta paragarri gertatzen diren sailkapen hori: hizkuntza luzeak eta hizkuntza laburrak... Hori baino teorizazio aberatsagorik ez dagoen bitartean, edeki gaude. Bere aldetik, Iñaki Zubizarreta (EGUNKARIA, 1993-IX-19) defentsa-gutun labur bat idazten zuen, arrazoi erraz eta garbi bat eskeiniz: lanbide horretan diharduen asko liburu itzultzaile ere bada, eta, nonbait, liburuaren itzulpen horiek ez omen zaizkio, Lertxundiri bederen, hain txarrak irudi-

tzen... Dagoena dago esatea bezain zilegia eta ulergarria dena, bestalde.

Nerai ibili nintzen, urtebetez edo, horrelako itzulpen negargarri eta txar batzuk egiten. Itzulpena ez eta egokipena esaten zaio lanterri horri, ez baita itzultzea bakarrik, esaldia egokitu egin behar izaten delako. Ez da lan erraza, eta arazo asko baditu, ez linguistikoak bakarrik. Baina hitz egin dezagun pixkatxo bat arazo linguistikoaz. Haugen-ek, 1966 urtean, lau urratsen bidez definitu zuen hizkuntza baten estandarizazio prozesua: 1) norma baten aukeraketa 2) kodifikazioa 3) elaborazioa 4) implementazioa. Normaren aukeraketa hizkuntzaren aldaera bat aukeratzeko datza. Gure kasuan, guztiok dakigunez, euskaraz batua da norma hori. Kodifikazio-lana norma horrekin behar dituen arau ortografikoak, morfologikoak, hiztegia, jorkera, etabar finkatzen datza. Elaborazio-lana hizkunt-

bat atxilotzera. Onberak odol-zaleari: «Kontuz ibili, ez dut pistolarik eta horrelakorik nahi». Atxilotu nahi dutenean, al-diz, susmagarriak pistola txiki bat atera eta Mel Gibsonek akartzen du bertan, susmagarriak tiro egin baino lehen. Onberak, orduan, haserre antzean: «¿Conociste alguien a quien no mataras?». Erdaldun zaharra nautze, eta, nire erdarazko esperientzia linguistikoaren arabera, ez dut uste munduan badabilenik egoera horretan horrelako sintagmarik esan lezakeen gaztelaradunik, ez behintzat nik ezagutzen ditudan gaztelaratan. Burura etortzen zaizkit, esate batera, «¿Has conocido alguna vez a alguien a quien no has matado?», «¿Has conocido alguna vez a alguien y no lo has matado?», «¿Alguna vez has dejado vivo a alguien a quien has conocido?». Adibideak nahikoa farregarria da, noski, eta, batez ere, gure esperientzia oso urrunduak; pelikula bat



tzak funtzio-linguistiko guztiak harrapatzeko behar dituen 'corpusak' sortzean (hiztegi bereziak, hainbat hizkera bereziak—administrazio-hizkera, kasu— behar dituen fraseologia eta ereduak, etabar) datza. Eta implementazioa aukeraturako eredu hori onartuz gero, teibistetako pelikula egokitzea 3. puntuaren barruan egongo litzateke: 'corpus' horren lanetan. Hau da, beste hitzetan esanda, futbol partidua bat euskaraz emateko horrelako hiztegi be-rezi bat eta fraseologia bat sortu behar den bezalaxe, horrelako egitura linguistiko bereziak landu beharko dira teibistetako filmak itzuli ahal izateko. Adibide praktikoa paratuko dugu: pasa den asteburuan bertan ETB 2-k 'Arma letal' jarri zuen. Mel Gibson odol-zale-fama duen poliziak, eta bere lankide berriek ez omen zaizkio, Lertxundiri bederen, hain txarrak irudi-

da, azken finean. Baina imajina ezazue beste antzeko eszena bat (¿Comprasté alguna vez un huevo que no comieras?), eta nabarmen geldituko zaizue esaldi horiek ez duela zerikusirik usatzen dugun gaztelararekin. Zergatik? Hor egokipen-lana egin behar izan duelako gaztelarrek ingelezaren bortxaz. Lehen esaldiak (¿Conociste alguien a quien...?) hamabi silaba dituen bitartean, hor goian paratu ditudanak hogeita hemeretzi eta hogeita bost dituzte. Hartara jarri ezkerre, eta Amurizaren zientziaren arabera, gaztelara ere hizkuntza luzea da. Ingelesa baino luzeago, behintzat. Baina ez dut uste kontua «luzea» edo «laburra» denik, baizik eta hizkuntza tratatu eta egokitzea. Lehen proposatu dugun ereduaren arabera, (3) elaborazioa izendatu dugun puntuari dagokion egokipena: esamolde berezia, hiztegia luzea, 'corpus' bat osatu arte, berriaz den funtzio-linguistiko hizkuntza horretan bete ahal


izateko.

Jakina, gaztelarrek ez du euskaraz dituen arazoak, eta horrelako elaborazio-lanak lasai asko egiten ditu denon oharkabean. Artikulu hasierako Periko horrekin gehiegi nekatu gabe ikusiko zuen 'Arma letal', inori gomendatuko ez nion pelikula, bestalde. Perikok, eta Perikorekin batera beste guztiok, aspaldi «ikasi» dugu telebistako gaztelara, ikasten ari ginelako konturatu ere gabe. Euskaraz, ordea, 3) puntuaren esaten genuen lanarekin batera, 2) puntuko ere egin behar dugu, hau da, kodifikazio-lana, eta 4) puntuko —implementazioa, alegia— halamoduz baizik ez da lortu (noraino onartu du euskaldunak farregarria da, edo, bestela esanda, zein da euskaraz baturaren implementazio-maila?). Puntu gehiegi, agian, dagoen indarrarekin erantzun ahal izateko. Are eta gehiago ikusten dugularik indar eta energia gehienak kodifikazio-lanetan —oraindik ere!— erretzen direla, alperrik erre, nere ustez. Zeren —eta hau beste bat da—, inork, euskaraz, eta pelikula bat egokitze garaian, idatziko balu adibidetzat hartu dugun gaztelarazko esaldiaren parekorik, ez izan dudarik karneta berehala baino lehenago kendo-kioketea, araua eta kodi-goaren erabilera zuzenaren izenean, jakina. Horra hor non kodifikazio-lana, garrantzizkoa izanik, antzua, alienantea eta are zikiratzailea izatera ere irits daitekeen. Gure artean gehiegi dena, zalantzarik gabe.

Euskaraz pelikula ikusten ikasi nahi dugun—edozein hizkuntzatan mintzatzen, leitzen, eskribitzen eta pelikula ikusten ikasi dugun bezala—, bikoizketa-entresaren egitura eta mundua nolakoak diren, zuzentzaileen betebeharra zertan den, abotsa jartzen dutenen jarriera eta maila nolakoak den, aferraren alderdi guztia koordinazio eta planifikazio-lanak noren gain etorri beharko liratekeen, horiek guzti horiek eta gehiago ere bai, alderdi linguistikoarekin eztabaidatu beharko genituzkeen gauzak dira; baina honelako gaiez hitz egin beharko genuke, gauza enfokatu beharko genuke, bederen, Haugenen ereduarekin edo beste edozeinekin. Bitartean, «euskaraz bikoiztutako pelikula putamierda dira» esatea oso erraza da, hala badirua ere. Erraza, merkea, eskasa, antzua eta aspergarria. Horrela ez goaz inora.



Gazteendako Zokoa



Nafarroako taldekako txapelketaren lehenengo jardunaldiko partida, 1992.go urriaren 17an jokatu.

Koldo Flores (Arrano Elkar-tea) - Santiago Alfonso (Runa 'A').

1) d4, f5; 2) Zf3, Zf6; 3) c4, e6; 4) Ag5, Ab4 xa; 5) b2-d2, 0-0; 6) a3, Ad2; 7) Dd2, d6; 8) e3, b6; 9) Ae2, Ab7; 10) 0-0, bZ-d7; 11) Dc2, De8; 12) Zd2, Ze4; 13) Af3, Dg6; 14) Af4, dZ-f6; 15) h3, aG-e8; 16) Dd1.

Ikus koadroa. Taula ezkutuko jokaldiez hornitua zegoen. Txuriak nahasi egin dira egoera honetan, eta ez dituzte beltzen asmoak igarri. Ondorioz, pieza bat galduko dute, eta partidak ildo latza hartuko die.

16) ..., Zd2; 17) Ab7, Zf1; 18) Ef1, e5; 19) e5, e5, 20) Ah2, Df7; 21) De2, De7; 22) Gd1, Gd8; 23) Gc1.

Egoera zailaren ispilu da jokaldi hau. Aldaketak sahiestu behar dituzte. Txuriek ez dute gozatzeko paradarik.

23) ..., c5; 24) Dc2, Db7.

Partida ia erabakita baze- goen, oraingo huts honek amaiera eman dio. Lehengo konbinazio horretan galdutako piezak kontzentrazioan eragin duela argi dago. Oso arrunta da egindako oker bat beste oker batek laguntzea.

Ikasketak zertarako

VICTOR MENDEZ

Nik ikasketak baliagarriak aurkitzen ditut bakarrik gustatzen zaizkidan edota jakitea interesatzen zaizkidan materietan aplikatzeko. Ikasketak gure bizi antolaketarekin erlazioatuak daude gogorki, orduan gure bizi antolaketari ondorengo kritika hau azaldu behar diot.

Guk, gure hiriak, gure konbenientziarako eraikitzen ditugu, edo hasiera batean horrela da, baina ondoren gure erosotasunerako eraiki dugun hiria huts edo inkonbenientez beterik dago, gure erosotasunerako eraiki dugun hirira moldatu behar gara, erosotasun guztiak han bukatzen dira.

Zertarako eraiki bideak, gero zeharkatu behar izateko. Ez du zentzurik bide bat eraikitzea eta gero bide horretan kotxe istripu bat izatea. Esango duzue orduan zertarako jan, gero jan duzue

kaka egiteko, baina ez da adibide berbera, jatea bizitzeko beharrezkoa da eta. Bideak eraikitzea, berriz, ez da beharrezkoa bizitzeko.

Guzti honekin esan nahi dudana zera da, aurrerapenetan bati nolabaiteko atzerapena agertzen dela; arrazoi batzuegatik aurrerapena eta arrazoi horien ondorioengatik atzerapena. Atzerapen hau izan daiteke degradazioa, herri atzeratuek jasaten duten pobretasuna... Hauxe da, kimikaren aurkikuntzak osos baliagarriak dira beste materialak aurrezteko, baina oso kaltegarriak behintzat arma kimikoen erabilpenerako. Honekin ez dut esan nahi aurrerapen guztiak atzerapen bat dakartenik, baizik eta ia aurrerapen guztiek puntu edo faktore negatibo bat dutela eta nik horri atzerapen izena jarri diot.

Esan genezake jenderik kul-

toena bizitzaz gero eta gutxien dakiena dela. Aberastasuna, kulturarekin erlazioaturik dagoela jakin behar dugu eta pertsona aberatsak guztia egina dutenez ez dakite zer den bizitzea.

Beren aberastasuna, besteen pobrezia esker daukate. Beraz, hori ez da beraiek eraikitako bizitza.

Adibide bezala, eta neure burua pertsona kultotzak jotzen badut, zer mailatan nago eskimal baten aldean? Beharbada nik ton-takeria gehiago jakingo ditut, baliogabeko jakinduriak: hizkuntza bat baino gehiago, matematikak etabar... baina bizitzaz nork daki gehiago, nik ala eskimalak? Beraiek eskuekin egiten dute guztia: ehiza, etxeak... beraiek bizitzaren ezaugarri guztiak ezagutzen dituzte eta nik bitartean hiru gehi hiru sei dela dakit, baina ez diot bizitzari zentzurik ikusi.



Errozabal

Izen hau oso jende gutxi ezagutzen du. Inork ez du erabiltzen gaur egun eta, soil soilik, agiri zaharretan eta historia liburuetan irakurtzen da. *Errozabal* Ibañetatik hegoaldera zabaltzen den zelai zabal eta alai da. Bertan Orreaga, Auritz eta Aurizpe- rri altxatzen dira. XIII. mendean baino lehen lur guzi hauek, baita Luzaidekoak ere, Erro ibarrarekin lotuak zeuden.

Hori jakin ondoren hobeki ulertzen da izenaren esannahia. Erroibar ezagutzen duenak badaki haren malda eta aldapen berri eta aise ikusiko du zeinen ongi deskribatzen duen *Errozabal* izenak bailara honen iparraldeko alderdia. Esannahia *Plana* edo *Llanura de Ebro*.

Izena, euskaraz erabiltzen ez den arren, ez da erabat itzali eta, mozturorik bada ere, usu izaten dugu ahoetan: *Roncesvalles* edo *Roncesvaux*.

Jimeno Juriok, 1973ko 'Principe de Vianan' idatzitako artikuluan, argi uzten du puntu hau. *Rozaballes* dokumentatzen da lehenengo aldiz eta XI. mendean jadanik *n* sudurkaria ezartzen zaio. Historialariaren esanetan izenak honako bilakaera hau izan du: *Errozabal*, *Rozabal*, *Rozaballes*, *Ronzasvalles*, *Roncesvalles*, frantsesez *Roncesvaux* (gogora dezagun bidenabar Iparraldeko *Larzabal* herriaren izen ofiziala *Larcevaux* dela). Hots, erdaldunek *zabal* euskal hitza zaitu zuten *vall=valle* ulertzen zutelako eta hemendik abiatuta euskal izena bere hizkuntzetara egokitu zuten. Jimeno Juriok berak baztertzen ditu zenbait buruburorren etimologiak: *Rosavallis=Arrosa-ibar*, *Runcasvallis=Elorri-ibar*, *Roscida-vallis=Ihntza-ibarra*...

Beraz, badakigu *Errozabal* edo *Roncesvalles* zelai zabal guzia zela eta bertan bi etxe multzo nagusi zirela. Bata, erdaraz, *Hospital de Roncesvalles* zen, gaurko Orreaga, eta bestea *Burgo de Roncesvalles*, gaurko Auritz-Burguete. Denborarekin ospitaleak gero eta eragin haundiagoa izan zuen eta izen zaharra bereztat irabazi zuen: *Roncesvalles*, gure Orreaga. Bestaldetik Auritzek, lehengo *Burgo* edo *Burgo de Roncesvalles*, *Burguete* izenarekin etsi behar izan zuen.

Ezin dugu ahaztu Orreaga izenaren gainean dauden teoria kontrajarriak. Batzuen ustez, jatorrizko izena *Orria* izaki, *Orreaga* izen kultoa litzateke. *Nafarroako Euskal Izendegiari* begira, alabaina, aitortu behar da Nafarroako hiztunak *Orreagaz* baliatzen direla.

MIKEL BELASKO

Jenero Xumekoak


Euskal sukaldaritza

La vendetta e un piatto che si mangia freddo. Egia da mendekua hotz-hotzik jan beharrezkoa dela, baina gorrotoa Euskal Herrian bezain ongi ez da inon ere kuzinatzen, eta hemen betidanik bero-bero jan dugu.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

HITZ GURUTZATUAK



EZKER-ESKUI: 1.- Iragan aldia. 2.- Interjekzioa. Adiskide handia. 3.- Ohitura. Kontsonante bustia. 4.- Bi. Anaia, hitz elkarketan. 5.- Sobiet Batasun ohiko siglak. Alkoholen bukaera. 6.- Da, hari. Bururatua. 7.- Iridioaren sinbolo kimikoa. Belardi. 8.- Ogi saski. Iparretarrak. 9.- Era asko hartzen duena.

GOITIK-BEHERA: 1.- Diosala hitza. Arrazoi. 2.- Itsasadarra. 3.- Kontsonantea. Barazki mota. Ez eme. 4.- Ospa! Lana. 5.- Gauza. Erdi, hitz elkarketan. 6.- Sutegian urtzen den burdin zatia. ... egin, agurtu. 7.- Animalia. Oharra. Uranioaren sinbolo kimikoa. 8.- Iberiar penintsulako hegoaldeko autonomia elkarte. 9.- Erne! Euskaraz eta kito!

Bizi Bizian

Nafarroan 300 bazkide inguru ditu Mugarik Gabe Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE). Duela lau urte sortu zen, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan hirugarren munduaren garapenaren alde elkarlanean ziharduen jendeak bultzatuta. Iaztik hona Nafarroako Mugarik Gabe beste herrialdeetako erakundetik bereizi da eta bide berriari ekin dio. Urrats berri honetan, sensibilizazio kanpainei eman nahi die lehentasuna.



MUGARIK GABE

Mugarik gabeko elkarlana

A. AGIRREURRETA / IRUNEA

Hegoa eta Iparra bezalako hizak esanahi berezia dute gisa honetako erakundeetan. Ez dira, soilik, erreferentzi geografikoak. Ekuador ardatzak banantzen dituen munduaren bi laranja erdi horien artean zubi luze eta sendoa eraiki nahian dabilta.

«Potosí-ko meategietatik eraman zenuten zilarrez, Bolivia eta Espainia elkar lotzen duen zubi bat eraiki genezakeen», zioen Andeetako aymará batek. Egungo hizkuntzan, zilar tona guzti haien balioa % 0,7an kalkulatu da. Izan ere, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) aspaldian aholkatu zuen 'herri garatuen' aurrekontuen % 0,7 hirugarren mundura bideratzea. Salbuespen bakar batzuek ezik, gomen-dioa hitz hutsetan gelditu da.

Baina, antza denez, eta Gobernu Kanpoko Erakundeetan sortzen ari den hausnarketen arabera, gakoa ez datza diru edo errekurtsoen trasferentzia soilean.

«Esperientziak frogatzen duenez, hirugarren munduko desorekak konpondu nahi badiugu, derrigorrezkoa da iparraldeko herrietan kontzientziazio lan sakona egitea», dio Javier Aiza Mugarik Gabe erakundeko kideak. Aizak hamar urte daromatza herri ez-garatuaren aldeko lankidetzan.

Hori dela eta, Mugarik Gabe bere bizitzaren bigarren aroan dago egun. Hasiera batean, erakundearen lana hirugarren mundura zuzentzen bazen, duela urtebete norabide berria jorratzen hasi ziren: «Hemen bertan, Nafarroan, badago kontzientziazio lana egiteko esparru zabala. Herri ez-garatuak jasaten dituzten desoreken arrazoia antolamendu globalean datza. Eta horri dagokionez, bai hemengoek eta bai

Garai batean garapen proiektuak elizaren esku bazeuden, azken hamarkadan joera politikoei eragin gehiago izan dute proiektu bat edo beste aukeratzeko orduan.

hangoei badugu zer esatekorik eta aldatzekorik».

Horregatik hitzaldi zikloak, mahai-inguruak, heziketa ikastaroak antolatzeari ekin diote. Azken finean, hirugarren munduaren garapenaren alde egiteak iparraldeko herritarren bizimodu aldekoa dakarrela uste baitute Mugarik Gabeko kideek.

Ekitntza modu ezberdin hauek,

erakunde mailan ere, hainbat al-daketa ekarri dituzte. Erabat burujabea da egungo Mugarik Gabe Nafarroan eta ez du beste herrialdeetako erakundeekin loturarik, ez finantzaketari dagokionez, ezta erabakiak hartzeko orduan ere, behinik-behin.

Javier Aizak ohartarazi duenez, «nafar gizartetik sor daitezkeen egitasmoak bideratu eta gauzatu nahi ditugu. Bigarren urrats honetan gizartera hurbildu nahi dugu, administrazioarekiko zein alderdi politikoei menpekotasuna hautsiz. Izan ere, gizartetik sortzen diren ekimenak askoz ere eraginkorragoak dira».

Garai batean garapen proiektuak elizaren esku bazeuden, azken hamarkadan joera politikoei eragin gehiago izan dute proiektu bat edo beste gauzatuko zen erabakitzerakoan. Euskal Herri-tik, esaterako, Hegoamerika eta Er-tamerikara bideratu izan da ia laguntza guztia. Aizaren irudikoz, garapenaren aldeko lanetan ez lirateke aintzat hartu behar alderdikeriak edota bestelako arrazoi ideologikoak.

Aurten eta datorren urtean gauzatuko dituzten zortzi proiektuen artean azpimarratze-koak dira Sakanako eta Erribera garaiko udalek Guatemalako 'Comunidades de Población en Resistencia' direlakoekin adis-kidetzeko bultzatu dituztenak.



Guatemalako CPRak Sakanarekin anaitzeko proiektuak daude.

Pobreziaren turismoa

A.A. / IRUNEA

Mapamundian kokatzeko gauza ez den herri batera garraiatuko duen abioi txartela erosi; deitura exotiko duen hiriburura heldu eta ezagutu; bertako 'autoktonoek' jasaten dituzten bizi baldintza gogorrez jabetu; postal eta gutunetan, guztiz injustua dela aitortu.

Kolore dizdiratsu eta diseinu etnikoa duen txaleko pareta erosi. Eskupekoak eman —«gauzak konpontzen ez diren bitartean, gutxienez egunero jateko zerbait izan dezaten»—, inguruetako auzoak ezagutzera eraman zuen ume azkar haren alboan makina bat foto atera, gero lagunartean erakusteko.

Egun, edozein 'turistak' desiatuko lukeen esperientzia. Pobreziaren turismoa. «Egia da, teoriarik elkarlanera joaten diren asko turismo modu ezberdin baten bila dabilazala. Elkarlana moda ere bada», adierazi du Javier Aezek. Nafarroan, garapen lanetarako 17 Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) daude. Norbait 17 bidai agentzi berezi direla pentsa lezake.

Mugarik Gabe erakundean garbi azaldu dute: «Hirugarren mundura elkarlanera joateko asmoa duenak, zera izan beharko luke garbi: ezer irakatsi baino hango jendeaz ikasi beharko duela. Lehen mundukoek badugu herri ez-garatuaren biztanleaz zer ikasi».



Haurrak El Salvador-eko poblazio batean. 1992an osasun programa bat jarri zuten abian bertako ospitalean.

Irratilaria

Udazkena ailegatzen denean Eguzki Irratiak, ikasleek bezala, kurtsoari hasiera ematen ohi dio. Jada lehen hostoak erori egin dira, eta Eguzkik gaur zortzi neguko programazioa martxan jarri-

ko du. Ruben Marcillak —irratiko programazio arduradunak— honako elkarriketan aurtengo kurtsoaren berezitasunen berri eman digu. Esan digunez, «gaur zortzi zer entzuterik izanen duzue FMko 105'4ean».

«Entzun ezazue Eguzki Irratia!»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

EGUNKARIA.— NAFARKA-
RIAKo horrialdeetan azkeneko
agertu zinetenean zuen hamar-
garren urteurreña Iruñeko Uda-
lak irratia itxiko zuen mehatxu-
pean ospatzen ari zineten. Zertan
geratu zen mehatxu hura?

RUBEN MARCILLA.— Emititzen eman ditugun hamar urteotan mehatxu aunitz jaso ditugu, eta Udalarena horien artean beste bat besterik ez da izan. Esaterako, Telecomunicaciones deritzan erakundeak irratia itxiko zigula postaz jakinarazi zigun 1989ko martxoan, eta oraingoz, zorionez, haien mehatxua ez da gauzatu. Udalarekin antzeko zerbait gertatu da.

Irratia itxi nahi zigutela jakin genuenean—ohi denez Udalaren kontrako kanpaina egin ordez—*txapearen* kontrako pertsonaia eta erakunde ezagunen sinadurak bildu genituen, eta Udaleko alderdi politikoeekin hitz egin genuen. HB, IU eta EA gure alde agertu ziren, eta PSOEk —Eguzki Irratiaren alde, jakina, ez bazegoen ere— irratia itxteaz ezer jakin nahi ez zuela esan zigun.

Irratiak sinaduren bitartez lortutako laguntza, eta gainontzeko alderdien jarrera ikusita, UPNK azkenean gauzak zeuden moduan uztea erabaki zuen, eta hemen gaude. Eguzki Irratia egun ezlegala da. Hori argi dago, baina haren egoera —eta oro har irрати komunitario guztiena— lege araudian zehazteke dagoenez, oraingoz ez dute gure kontra *kana* handiegirik sartu nahi. Bestalde, ez dira gure kontra egitera ausartzen... kar, kar, kar.

Dena den, pisuarekin oraindik ere arazoak dauzkagu. Abenduan etxea goitik behera berrituko dute, eta sei hilabetez beste toki bat



«Aurten berriro ere gora egingen dugu».

ITZIAR ALFORIA

bilatu beharko dugu emititu ahal izateko. Erronka latza izanen da hori.

EGUNKARIA.— Eguzki Irratia Iruñean tinko dirauen irrati libre bakarra da. Zer dauka Eguzkik gainontzeko irrati libreek izan ez dutena?

MARCILLA.— Hasiera-hasieratik Iruñean irratik librerik indartsuenak Eguzki eta Paraiso izan ziren. Paraisok profesionaltasunerantz jo zuen —hitzaren zentzurik txarrean—, eta haren porrota sekulakoa izan zen. Eguzki Irratiak kontrako bidea hartu zuen, eta gauzak ongi atera ziren. Gero LOT (Telekomunikazioaren Lege Organikoa) eta *txapeak* ailegatu ziren, eta oztopo horiek ere gainditu genituen. Lege horrek ez zuen irratik libreen artean presio handiegirik eragin. Arazoa zera zen, jendea ez zela legearen kontra egitea ausartzen, eta hori dela eta irratik gehienak desagertu ziren. Eguzki Irratiak legearen

kontra egin zuen, eta hemen dago, uhinetan libre.

EGUNKARIA.— Uhinetan libre egoteaz gain, irritati kurtso berri baten atarian zaudete. Zeintzuk dira aurtengo programazioren berrikuntza eta berezitasunak?

MARCILLA.— Azken urteotan baliabide teknikoek eta programazioaren kalitateari dagokienez gora egin dugu, eta aurtan berriro ere gorakada lortu dugula esan daiteke. Duela urte batzuk Eguzki Irratian lasai emititzen ziren saioak orain ez lirateke emitituko, eskatzen dugun gutxieneko kalitatea lehen baino askoz altuagoa delako.

Iaz bezala, aurtan ere programazioan saioen espezializiorantz jo dugu —saio bakoitzaren ardatz nagusia zehaztu nahi izan dugu—, eta kontrainformazioaren bidetik aldendu gabe, arestian irati libreetan lekurik ez zeuzkaten gaiei atea ireki dizkiegu. Astelehenetan futbolak badu

bere tartetxoa, astearteetan musika mexikarrak —‘Gavilan’ Cojon Prieto Azabache y los Hualolotes taldeko abeslariaren eskutik—, asteazkenetan esoterismoak, eta abar.

Berrikuntzen artean aipa genitzake Pablo Etxegarai intsumisoak eginen duen antimilitarismo saioa, 'De tripas corazón' izeneko amodiozko kontuei buruzko aholkularitza saioa, eta *reality show* bat. Bestalde, iazko saioek hortxe segituko dute, umorezkoa larunbat arratsaldetan, amnistiaren aldekoa igande goizeetan, EHGAMena astelehenetan, kulturari buruzkoa larunbat goizeetan, ekologistena, okupena, Neskaltza feminista taldearena... A! eta ahaztu ezinezkoa, egunero hamar t'erdietatik hamaikak arte Eguzki Irratiaren informatiboak. Orotara, egunero hamabi ordu inguru zuzenean emitituko dugu, eta beste hamabi orduetan musika izanen

Azken urteotan programazioaren kalitateari dagokionez gora egin dugu, eta aurten beste gorakada bat lortu dugula esan daiteke»

da entzungai FM 105'4ean. Beraz, egunean 24 ordu martxan.

EGUNKARIA.— Egon badaude irratia utzi duten lokutoreak, eta irratian sartu diren lokutore berriak. Nola hautatu dituzue berri horiek?

MARCILLA.— Aurten sekulako arrakasta eduki du lokutore berriak hartzeko egindako kanpainak, kopuru zein kalitate aldetik. Aurreko urteetan baino propaganda gutxiago eman diogu kanpainari, eta inoiz baino gehiago etorri dira saio eske. Jende gazte zein heldua etorri da gugana. Argi dago irratia sasoi onean dagoela, eta jende askok entzuten dituela gure saioak. Horren ondorioz jende asko irratian sartzeko irrikitan dago.

Hautaketa irizpideei dagokienez, aurten estreineko aldiz idatzitako txosten bat eskatu diegu saio guztiei, idazkian saioarekin egin behar dutena azal dezaten. Euskara, edukin berritzaile eta lan egiteko gogoei lehentasuna eman diegu. Bestalde, gutxi batzuk pastak eta mistela ekarri dizkigute, eta horiek saioa zuzen-zuzenean eskuratu dute.

EGUNKARIA.— Amaitu aurretik zerbait esan nahi baduzu, hemen duzu aukera.

MARCILLA.— NAFARKARIAko irakurle guztiei aholku bat eman nahi nieke: entzun ezazue Eguzki Irratia!

NOSKIJATOR

